

ARAUTEGIA

ATLETISMOA 2017

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu. Aire zabaleko pistan izango dira, 2017ko maiatzaren 27an, Gasteizko Mendizorrotzako atletismo pistan. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA

Txapelketan honako hauek hartu dezakete parte: haurren kategoriako atletek (2003 eta 2004 urteetan jaioetakoek), baldin eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioetako partaide badira; lurralde horietako ikastetxe eta elkarte ordezkarietako taldeek eta eskola kiroleko programetan parte hartu duten elkarateek. (LURRALDE HISTORIKO BAKOITZETIK BI TALDE, BAI GIZONEZKOEN KATEGORIAN BAI EMAKUMEZKOENEAN).

Lurralde-selekzioetako taldeek bina partaide eta erreleboetarako talde bana aurkeztu ahal izango dituzte proba bakoitzean. Atleta bakoitzak banakako proba bakarra eta errelebokoa egin ahal izango ditu gehienez.

Ikastetxeetako eta elkarteetako taldeek ordezkari bana gehi erreleboetarako taldea aurkeztuko dituzte proba bakoitzerako. Atleta bakoitzak banakako proba bakarra eta errelebokoa egin ahal izango ditu gehienez.

OHARRA.- Ikastetxeetako taldeetako atletek badute beren lurralde historikoko selekzioko kide gisa parte hartzerik, ikastetxearen ordezkari gisa parte hartzen ez duten banakako proba batean; inork ezin du iraupen-probetan edo iraupen erdikoetan (500 m, 1.000 m eta 3.000 m) doblatu.

2. TALDEEN OSAERA

Taldeek bete beharreko arauak:

- a) Taldean 11 atleta badaude, 8 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- b) Taldean 10 atleta badaude, 7 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- c) Taldean 9 atleta badaude, 6 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- d) Taldean 8 atleta badaude, 6 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- e) Taldean 7 atleta badaude, 5 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.

3. JOKU SISTEMA

Egingo dituzten probak:

⇒ LURRALDE SELEKZIOETAKO TALDEEK

- a) Gizonezkoen kategorian: 80 m, 150 m, 1.000 m, 3.000 m, 3 km ibiliak, 80 m hesiak (0,84), 220 m hesiak (0,76), altuera, pertika, luzera-jauzia, pisua (3 kg), diskoa (0,800 kg), xabalina (500 g) eta 4 x 80 erreleboak.
- b) Emakumezkoen kategorian: 80 m, 150 m, 1.000 m, 3.000 m, 3 km ibiliak, 80 m hesiak (0,76), 220 m hesiak (0,76), altuera, pertika, luzera-jauzia, pisua (3 kg), diskoa (0,800 kg), xabalina (400 g) eta 4 x 80 erreleboak.
- c)

⇒ IKASTETXEETAKO edo ELKARTETAKO TALDEEK

- a) Gizonezkoen kategorian: 80 m, 500 m, 1.000 m, 80 m hesiak (0,84), altuera, luzera-jauzia, pisua (3 kg) eta 4 x 80 erreleboak.
- b) Emakumezkoen kategorian: 80 m, 500 m, 1.000 m, 80 m hesiak (0,76), altuera, luzera-jauzia, pisua (3 kg) eta 4 x 80 erreleboak.

Altuera-jauzian, listonak atletek eskatutako altuera txikienean jarriko dira hasieran. Nolanahi ere, 10en multiploa izan beharko du neurriak eta, gero, 10 zm erantsiko zaizkio

igo behar den bakoitzean, harik eta ezarritako altueretara heldu arte. Hona hemen ezarrita dauden altuerak:

- Emakumezkoen altuera: 1,20 - 1,25 - 1,30 - 1,35 - 1,40 - 1,43 eta hemendik aurrera + 3 zm
- Gizonezkoen altuera: 1,30 - 1,35 - 1,40 - 1,45 - 1,50 - 1,55 - 1,58 eta hemendik aurrera + 3 zm
- Emakumezkoen pertika: 1,80 - 1,90 - 2,00 - 2,10 - 2,20 - 2,25 eta hemendik aurrera + 5 zm
- Gizonezkoen pertika: 1,80 - 1,90 - 2,00 - 2,10 - 2,20 - 2,25 eta hemendik aurrera + 5 zm

Jauzi horizontaletan eta jaurtiketetan, atleta bakoitzak LAU saiakera egiteko eskubidea izango du. Atleta-kopuruak ahalbidetzen badu eta zuzendaritza teknikoa ados badago, baina, atleta bakoitzak SEI aukera izango ditu.

Proba guztietan zuzenak izango dira finalak, eta bi serie egin behar badira, bata ikastetxeetako atleta ordezkariekin egingo da eta bestea lurralde-sekzioetako atleta ordezkariekin.

4. SAILKAPENA

Bi sailkapen egingo dira:

- a) Banakakoa (lehen hiru sailkatuak)
- b) Ikastetxeen edo klubuen arabera (lehen hiru sailkatuak)

Ikastetxe eta elkarteen arabera puntuazioan, txapelketan parte hartzen duten ikastetxe eta elkarteetako talde-kopuruaren arabera puntu bana emango zaizkio lehen sailkatzen den atletari (ikastetxe eta elkarteetako atleta ordezkariak bakarrik hartuko dira kontuan), bigarrenari puntu bat gutxiago, hirugarrenari beste bat gutxiago eta abar.

5. PROBAK

Proben ordutegia eta segida:

- 10:30 80m Hesiak. EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 Altuera. GIZONEZKOAK SELEKZIOA - IKASTETXEA
- 10:30 Altuera Jauzia EMAKUMEZKOA SELEKZIOA - IKASTETXEA
- 10:30 Pertika. GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 Diskoa (0.8kg.) GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 Pisua (3kg.) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA - IKASTETXEA
- 10:35 80 m Hesiak (0.76) EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
- 10:45 80 m Hesiak (0,84) GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 10:50 80 m Hesiak (0,84) GIZONEZKOAK IKASTETXEA
- 11:00 80m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 11:05 80m EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
- 11:10 80m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 11:15 80m GIZONEZKOAK IKASTETXEA
- 11:20 500m EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
- 11:25 500 m GIZONEZKOAK IKASTETXEA
- 11:30 1000 m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA-KASTETXEA
- 11:40 1000 m GIZONEZKOAK SELEKZIOA-IKASTETXEA
- 11:40 Pisua (3kg.) GIZONEZKOA SELEKZIOA-IKASTETXEA
- 11:40 Luzera Jauzia GIZONEZKOA SELEKZIOA-IKASTETXEA
- 11:40 Xabalina GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 11:40 Altuera EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA-IKASTETXEA
- 11:50 150m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 11:55 150m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:00 3000m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:00 3000m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 12:00 3000 m Ibiliak GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA

5. KALEA

- 12:25 220 m hesiak (0.76) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:30 220 m hesiak (0.76) GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 12:40 4X80m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:45 4X80 m GIZONEZKOAK SELEKZIOA



EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXVI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- 12:50 4X80 m EMAKUMEZKOA IKASTETXEA
- 13:00 4X80 m GIZONEZKOA IKASTETXEA

6. IZEN EMATEA

EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOetako izenemateak Lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira (eta EZ, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zerbitzuetan) 2017ko maiatzaren 19a 20:00ak baino lehen.

2017ko maiatzaren 23a, arratsaldeko 14:00ak baino lehen inskripzio-orria Atletismoko Euskal Federaziora igorriko delarik .

Dorsalak 2017ko maiatzaren 27an bertan jasoko dituzte partaideek, probaren idazkaritzan (ordezkariak jasoko ditu bere ikastetxeko nahiz lurralde historikoko dorsak guztiak).

7. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

8. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez direnetarako, honako hauetara jo da:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena



EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXVI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Euskadiko Atletismo Federazioaren arautegia.
- g) IAAFren arautegia.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.